

Hitzatzea

Amaitzen asmatzea

IBAN ZALDUA



Batzuetan komeni da gauzei amaiera ematea, ondo baino hobeto funtzionatu duten arren. Denborak higatzen ez duen gauza gutxi dago munduan, eta, batzuetan, garaiz moztu beharra dago, gauza horiek utzi duten oroimen ona iraurarazi nahi izanez gero behintzat.

Kultur produktuekin hori gertatzen da, askotan: mozteaz gain, mozten jakin beharra dago, eta behar den unean gainera. Komikiaren esparrua horren adierazgarri ona da. Konpara ditzagun, esaterako, mundu frankofonoak (eta europarrak) esportatu dituen bi pertsonaia eta abentura-eskema nagusien ibilbideak: Tintinena eta Asterixena. Tintin erreportari beti-gaztea 1920ko hamarkadan sortu zuen Hergé belgiarrak (1907-1983), eta «lerro argiaren» zein abenturazko ko-

miki klasikoaren paradigma bihurtu da. Hergéren lanaren kalitateak gora egin zuen albumen arteko tartea handitu eta berarekin lan egiten zuen ekipoko partaideak ugaltu ziren heinean; bide batez, bere hasierako kontserbadurismo kristaua alde batera utzi zuen pixkanaka, eta jarrera gero eta «progresistagoen» (edo, nahiago bada, «humanistagoen») oihartzunak aurki ditzakegu albumetan aurrera egiten dugula. Izan ere, azkene-koak dira, kritikiko gehienek ustetan, onenak, narrazioaren aldetik bederen: *Tintin Tibeten* (1958, depresio sakon baten ondoren idatzia), *Castafioreren bitxiak* (1961), *Sidneyrako 714. begaldia* (1966), eta *Tintin eta pikaroak* (1975). Ekipoa guztiz gai zen maisuaren lana jarraitzeko (haren kideen artean, alabaina, komikilari bikainak egon

Hitza

ziren: Edgar P. Jacobs, Bob De Moor, Jacques Martin...), baina Hergék argi utzi zuen Tintin amaituko zela bera hiltzean; bere 24. albuma bihurtzeko bidean zegoen *Tintin eta alfa-arte*a bukatu gabe utzi zuen, bada, zirriborro gehienak eginak egon arren (Hergéren taillerrekoek ez zuketzen izango inolako arazorik albumeko behin-betiko irudiak marrazten finitzeko... baina *thriller*-aren amaiera falta zen, eta, ondorioz, album horretaz dugun testigantza bakarra 1986an argitaratu ziren bozetoak eta elkarrizketak dira). Edonola ere, lan ez oso zabal baina borobila utzi zigun Hergék, kritikari gehienek esanetan.

Ez da kasu bakarra. Gogora ditzagun, besterik ez bada, Schulz estatubatuarrena (bere *Charly Brown*-en azkeneko tira argitara eman eta biharamunean hil zen: ez zuen jarraipenerako aukerarik utzi nahi), edo haien lanak gailurrean zuden uneetan bertan behera uztea erabaki zutena: Quinok *Mafalda*-rekin egin zuena, eta Bill Wattersonen *Calvin & Hobbes*-ekin (azken horren kasuak Enrique Vila-Matasen *Bartebly y compañía* liburuan agertzea mereziko luke, idazten edo argitaratzen jarraitzeari uko egin zioten beste autoreekin batera –izan ere, Watterson komiki arloko Salinger-a dela esan du norbaitek, bere arrakasta izugarria zen eta 1995ean, marrazteari



utzi zionean–). Kontua da erabaki horrek, hein handiagoan edo txikiagoan, aipatutakoen lanen balio artistikoari eta izen onari eusteko balio izan duela.

Kontrakoa gertatu da, nire ustez, Asterix-en ibilaldiekin. Galiar txikiaren lanak Hergérenak baino berriagoak dira, 1961ean hasi baitziren argitaratzen, René Goscinny gidolariaren eta Albert Uderzo marrazkigilearen eskutik, eta, laster, Frantziar nazionalismo garaikidearen ikur bilakatu ziren. Ez dezagun hori inolaz ere gutxiespen bezala hartu: Asterix-ez hitz egitean frantziar txobinismoa topikorik errepikatua bada ere, ezin da ahaztu lanok duten karga autokritikoa, bai Frantziarekiko, bai eta mendebaldeko mundu garatuaren bizimo-

duekiko ere, dauzkaten umore eta abentura dosi handiez gain, jakina; horietan datza, hain zuzen, gazteen eta baita helduen artean ere izan duen arrakasta. Edonola ere, album sorta ederra utzi ziguten Goscinnyren heriotza arte, 1979an; besteak beste *Asterix lejonaria* (1967), *Asterix eta pertza* (1969), *Liskarra* (1970), *Jainkoen egoitza* (1971), eta *Obelix eta konpainia* (1976), onenak, nire uste apalean. Goscinnyren heriotzaren ondoren, ordea, pertsonaiaren abenturekin jarraitzeko erabakia hartu zuen Uderzok, eta horren ondorio izan dira orduz geroztik argitara eman dituen zazpi albumak, eta zenbait filma (marrazki bizidunekoak, batik bat, baina baita «konbentzional» bat ere). Antzinako distiraren arrastoren

Hitza

bat topatzea posible bada ere (*Asterixen odisea*-n, adibidez –1981–), aurrekoekin konparatuz gero, Uderzoren bakarkako lanak nahikoa eskasak dira, oro har, eta, Hergéren lanari gertatu zitzaionaren aurka, gero eta kutsu kontserbatzaileagoa hartu dute (emakumeari ematen zaion tratamenduak argi uzten du hori, baina ez da adierazle bakarra; hale-re, egia da Tintinen saga ez dela bereziki aipagarria bere «feminismoagatik»...). Horrenbeste oihartzun mediatikoa merezi izan duen *Asterix eta Traviata* album berriaren

argitarapenak esandako guztiaren patetismoa berretsi du. Uderzok ez du urrezko arrutzen oioa akabatu nahi izan (normala den bezala...), eta, edonola ere, bere albumak dozenaka saltzen jarraitzen dira (hori bai, gero eta publizitate kanpaina mediatiko zabalago eta konplexuagoen laguntzaz); baina arrautzak ez dira jadanik hain oparoak, eta metal preziatu gutxi dute purpurina-eskualdiaren azpian.

Horixe gertatzen da, askotan, sailak gehiegi luzatzen direnean. Horren beste adibide bat Jean-Michel Charlierrek (testuak) eta Jean Giraud (marrazkiak) sortu zuten Blueberry tenientearena izango litzateke. Publiko gaztearen artean sekulako arrakasta lortu zuen komiki arloko *western*ik famatuena albumez album hazi zen, kalitatean zein aleetan, 1965eko *Fort Navajo*-tik



1990eko *Arizona love* arte, Charlierrek eta Giraudak elkarrekin sinatu zuten azkenea; Charlier urte horretan zendu zen. Lehendik, ordea, Charlierrek Blueberryren abenturak bikoiztea erabaki zuen: Giraudak marrazten jarraituko zuen sail nagusiaz gain, Blueberryren gaztaroa kontatuko zuen bigarren ildo bati hasiera eman zion (Sezesio Gerran kokatzen dena). Laster, lerro horretan marrazkilari berriak sartu zituen, baina emaitzak, oro har, ez ziren hain borobilak izan. Eta, are gehiago, Charlier hil-

tzean, Blueberryren ibilaldien adar berri bat sortu zuen Giraudak berak («Marshall Blueberry» deritzona; horretarako ere beste marrazkilari batzuk kontratatu zituen), eta Blueberry gaztearenaz beste gidoilari eta marrazkilari berri batzuk arduratu ziren. Bi lerro horien emaitzak, berriro ere, gero eta hala-moduzkoagoak suertatu dira, betiko Blueberryren abentura-eskemak estu-estu jarraitzen badituzte ere. Salbuespen bakarra lerro «nagusia» da, Giraudak berak marrazten eta idazten jarraitu duena. Nire ustez, ordea, balizko salbuespena besterik ez da: *Arizona love*-ren ondoren argitaratu dituen albumak onak dira, sail nagusiaren aurreko ibilbidearekin hautsi egiten dutelako hain zuzen ere. Ez dezagun ahaztu Giraud estilo ia erabat ezberdineko Moebius komikilari famatuaren alter-egoa edo heteronimoa

❧ Hitzatzea ❧

baino ez dela (edo aldrebes): izan ere, Blueberryren abentura berriek (*Mister Blueberry* –1995–, *Itzalak Tombstone gainean* –1997–, eta *Geronimo apatxea* –2000–) gehiago dute Moebiusetik, Giraudetik baino: abentura *helduak* dira, filosofia zipriztin eta guzti (posmodernoak, akaso?), mendebalde urruneko narrazioen eskema erabiltzen jarraitzen duten arren.

Amaitzen asmatze ezaren gorengo maila EEBetako super-heroien abenturek osatuko luke: kasu horretan, jakina den bezala, autoreek (gidoilari zein marrazkilariek) ez dute ia garrantzirik, pertsonaiek baizik, eta, hasierako arrakastaren ondoren, hamarkadetan zehar luza daitezke haien abenturak; gogoan izan Superman, Spiderman, Lau Harrigarrien edo X-Taldearen kasuak: gehienak berrogei urte baino gehiago egon dira, hileroko kioskoetan salgai. Gidoien eta marrazkien kalitateen gorabeherak, halabeharrez, itzelak dira; noizean behin, jakina, saila «berpiztera» datorren gidoilari edo marrazkilaria bat agertzen da (gogoan hartu Frank Millerrek egin zuena Batman edo Daredevil-ekin laurogeiko hamarkadan), baina salbuespenak besterik ez dira: nerabeen masa-kontsumora zuzendutako produktu industrialak. Baina horrek guztiak, jakina, beste kontu batean sartzera eramango gintzake. Bestalde, badugu, gugandik ez hain urrun, amaieraren aur-

kako borroka agoniko horren eredurik, nahiz eta beste maila batekoak izan: *El Correo* eta *Diario Vasco*ko Don Celesen kasu tristea, adibidez (egin al dio sekulan graziaz inori? Nola jakin gaur irakurtzen dugun tira ez denik, esaterako, 1961ean argitaratutako berbera?); Espainiari dagokionean, gauza bera esan daiteke, adibidez, Ibáñez-en Mortadelo eta Filemón-i buruz (lehen-go albumak, kasu honetan, oso onak ziren; bere produkzioa larriki zarpaildu da, ordea, azken hamarkada hauetan). Baina, berriro ere, urrunegi joango ginatete bidezidor horietatik.

Ni, jakina, «ondo» bukatzearen aldekoa naiz. Gehiegi luzatzen diren «jarraipenek» aurreko maisulanen berezko meritua desegiten ez dutela ondo dakidan arren, obra oso batez dugun gomuta nolabait apaltzen dutela iruditzen zait. Amaitzen asmatzearena oso arte zaila da, ia atzemanezina, sortzaile baten lanari buruzko oroimena bezain gauza lanbrotsuarekin zer ikusia duen heinean: ez dago erregularik, ez dago errezetarik. Bazkari perfektu batek ahoan eta memorian uzten digun arrastoaz ari gara, nolabait: jaten jarraitzeak kontrako efektua gauzatu ohi du. Azken batean, Beatles eta Stonesi buruz ari gara. *Blade Runner* eta *Batman*-i buruz. Borges eta Vargas Llosari buruz. Eta, zergatik ez, Tintin eta Asterixi buruz.



Egin zaituz Galtzagorri Elkarteko bazkide

1. Jarraian aurkezten dugun fitxa bete eta ordainketa-agi-riarekin batera, gure helbidera bidali:

Galtzagorri Elkarte

Artzain Onaren plaza, 15-1, ezk. 20.015 Donostia
galtza.hgl@euskalnet.net

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Posta-kodea:

Telefona: faxa:

e-maila:

Ogibidea: lantokia:

2. Urteko bazkide-kuotaren ordainketa egin (2.000 pzt.)
Galtzagorri Elkartearen kontu-korrontean dirua sartuz:

CAJA LABORAL – EUSKADIKO KUTXA

sukurtsala: Loyola 15 (20.014 Donostia)
kontu-zenbakia: 3035 0242 6 8 242 0 00247 1

Galtzagorri Elkarteko bazkide guztiek doan jasoko dituzte
Elkartearen argitalpen guztiak (Behinola aldizkaria,
Galtzaberri boletina, eta abar).